

Santi Brouard

Euskaldunon Egunkaria, 1994-11-22: 2.

Gure gerraren hirugarren aldiz heldu nintzen Donibanera bortxaz, beste asko bezala. Goizez jaso genuen telebistaz. Carrero Blanco hil zutenaren berri, eta gogoan dut euskal sozialistetako baten patxadazko irrifarra Ganbetan paseatzen. Sasoi urdin-beltz honek markatu dit nere hau. Hemen ezagutu nuen Santi Brouard. Imanol Anasagasti lagunaren eskutik, 'sendagile' bezala. Han zen, Urdazurin, Oteiza ere. Eta esan nion ikusi berria genuela 'Peixoto' deitura zuen gazte batek, aihotzez edo, egindako eskultura, eta ikusi behar lukeela; Jorgek ohi duen bezala esan eta egin, han goaz taldetxoa lehenbizitzara, orduan taldeka bizi bait ginen heriotzen aurrean! Mundu estu eta hunkigarria zen bizi genuen hura, dena hain gertu! Han sentitu nuen berriz estu euskaltasuna. Bilbon umetan gerran bezalako! Gogoan dut: nola Santik esan zidan EAJk Donibanen zuen ordezkaria agurtu nahi zuela, eta arratsalde hartan bertan joan ginen biok Mikel Isasiren etxera, eta joan-etorri honetan esan nion Santiri gurasoak nituela Caracasetik heldu berriak, aita ia 80rekin nahiko makal... eta han bertan igo zen etxera, begiratu zuen arretaz, eta esan zidan biharamunean etortzeko zela. Bilbotik bere laguna zen sikiatra katalana, eta igoko zuela etxera. Hala etorri ziren biak. Geroztik familiako sendagile aparta izan genuen, eta hainbeste lagunen artean minetako bat... Hiru urte gero, 1976an, Bilboko 'Gurian' eskaini zidaten lagunarteko batean han zen Santi, Juan Ajuriagerra eta bestekin... Orain hamar urte, haurrak hartzen zituen kontsultategian hil zuten, hiltzaileak oraindik libre daude gaur arte, eta Tere justiziaren zain oraindik.